


Haur Hezkuntza

Hasi da
haur-eskola,
etxekotze-prozesua



LANBIDE
EKIMENA



Proiektuaren bultzatzaileak

LANeki



Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Hizkuntza-koordinazioa



Egileak: IVAN FEBRER y EVA JANSÀ: *Revista Infancia* núm. 129, septiembre-octubre de 2011. (Febrer-Jansa)

Zuzenketak: Elhuyar Hizkuntza eta Teknologia

Maketa: Elhuyar

Azalaren diseinua: Naiara Beasain

2012an itzulia eta prestatua



0-3 URTE BITARTEKO HAURREN ESKOLA

HASI DA HAUR-ESKOLA, ETXEKOTZE-PROZESUA

JUDIT FALK

Haurrak eta familiak eskolan lehengoz sartzen diren unea etengabeko gogoetagaia da; horrenbestez, zehaztasun handiz jokatu behar dugu beti, baita une hori definitzeko darabiltzagun hitzak hautatzeko orduan ere. Eskola atsegina da gure proposamenaren muina, hots, familiekiko harremana giltzarri duen eskola-proiektua; hala, bada, terminologian ere jauzi txiki bat egin behar dugu ezinbestean, gure eskola-ikuskerara horri lotuta, eta termino askoz demokratikoagoa erabili, gure hausnarketetan zein eguneroko hartu-emanetan. Gaur egun, *egokitzapenaren* kontzeptua hanka-motz geratu zaigu dagoeneko; zalantzak sortzen hasia da termino hori, eta *harrera* eta *etxekotze* kontzeptuak ere jorratzen hasi dira harekin batera.

Luze hitz egin da egokitzapenaren terminoari buruz eta, zehazki, Charles Darwingek espezieen eboluzioaren teoriaren barruan termino horren gainean egindako funtsezko interpretazioari buruz. Animaliak beren ingurunera egokitu dira denboran barrena, beren lehiakideek baino hobeto biziraun ahal izateko: jirafek, esaterako, lepoa luzatu dute goi-goiko hostoetara iritsi ahal izateko. Eta gizakientzat ere funtsezkoa da egokituta daudela jakitea. Alabaina, zer adierazten du egokitzapenak gizon-emakumeei buruz dihardugunean? Zertan datza txikienen eskola-egokitzapena? Zein da gakoa: egokitzea edo etxekotzea?

■ Etxekotzea edo egokitzea?

Zenbait ikerketa taldek luze daramate hausnartzen eta eztabaidatzen, haurrekiko eta familiekiko harremanen gainean Lóczyk eta beste batzuek egindako saiakuntzei buruz, eta hausnarketa eta eztabaida horien fruitu sortu da *etxekotze* kontzeptua, haurrei eta haien familiei haur-eskolan abiatzeko aldiaren ematen zaien laguntza adierazteko.

Haurrak eta haien familiak egokitzeko prozesuan, askotan baliteke berek moldatu behar izatea eskolara, erritmoetara eta eskolan lan egiten duten profesionaletara, gu konturatu gabe ere. Izan ere, haurrek «erritmoa lehenbailehen har dezaten» nahi izaten dugu, alegia, gure hotsera dantzan egin dezaten. Horrenbestez, eskolako antolamenduak bultzatuta, ordutegiak homogeneousatzeraz jotzen dugu batzuetan, haur guztiei aldi berean arreta eman ahal izateko: sukaldea «bazkalordurako» antolatzen da, eta haur guztiek «bazkalostean» hartzen dute atseden, haien adina zeinahi dela ere. Hala, bada, egokitzapena nola egiten den, baliteke harekin batera aldeetako batek (eskolak edo haurrak eta haren familiak) amore eman behar izatea; eta bigarren horiek etsi behar izaten dute ia beti.

Haurrak eta gurasoak etxekotzeko prozesuan, ezinbestekoa da eskolaren eta familiaren artean alde biko hartu-eman ezartzea. Etxekotzea, gure iritziz, haurren hezkuntzan parte hartzen duten pertsona guztien arteko loturak ezartzea da; alegia, haurraren, familiaren eta hura zainduko duten irakasleen arteko loturak ezartzea.

Termino horien sustraietara jo dugu, eta haien esanahia begiratu dugu hiztegieta. Hala, *Harluxet* entziklopediaren arabera, *egokitu* «Helburu edo erabilera baterako egokia egin edo bihurtu, egokitasuna eman; moldatu» da, eta *etxekotu*, berriz, «etxeko bihurtu». Guri, beraz, erosoagoa zaigu, *etxekotu* terminoa, eta horregatik gureganatu dugu, aproposagoa iruditzen baitzaigu ikasturte-hasierako aldi hori adierazteko, zeinetan haurrek familiak eta irakasleek elkarrekin hasten baitira bidea egiten.



Zer esan nahi du, baina, etxekotzeak? Zerk adierazten du haurra ondo etxekotu dela? Noiz hasten da etxekotzea? Zer sentitzen dute familiek haurrak eskolan hasten direnean? Nola hartzen du eskolak sentimendu hori? Zer erantzun ematen zaio? Noiz dago, gure ustez, haurra etxekotuta? Hamaika dira zalantzak, eta luze egin dugu gogoeta horiei guztien gainean. Hala, bada, auzi horiek mahai gainean jartzen saiatuko gara jarraian.

Nor da etxekotzen dena?

Arestian esan dugun legez, haur-eskolara sartzeko une zail eta labain horretan parte hartzen duten subjektu guztiak hartu behar dira kontuan: haurrak, familiak, erreferentziako hezitzaileak eta eskolako gainerako helduak, azken batean, hasierako egun horiek sakon-sakonetik biziko dituzten guztiak. Izan ere, haurrak, irakasleak eta familiak kontuan hartzekoak dira, noski, zuzenean parte hartuko baitute prozesu horretan, baina eskolako gainerako langileak ere ezin dira ahaztu. Beraz, aurrekoekin batera, kontuan hartzekoak dira, orobat, taldeko hezitzaile laguntzaileak, beste talde batzuetako hezitzaileak, zuzendaritza taldea, koordinatzaileak, eguerdiko zerbitzua ematen duten langileak baita une horietan prozesu horretan parte hartuko duten eskolako gainerako familiak ere.

Gogoan izan behar dugu urtero, iraila iritsiaz batera, haur eta familia batzuek lehenengoz ezagutzen dituztela eskolako gunea, beste heldu batzuk eta harremanak ezartzeko eta arreta emateko beste eredu batzuk; baina, irakasle eta hezitzaileek ere beren prozesu berezia bizi dute urtero. Ikasturtez ikasturte, familia berriak sartzten dira eskolara, eta harreman berriak ezartzen dira haiekin; areago, familiak aurretik ezagunak baziren ere, harremanak etengabe aldatzen dira; hala, bada, pixkanaka ezagutu behar dugu elkar.



Guk ezinbestekoa dugu proiektua familiekin eta eskolarekin partekatzea, betiere komunikazioa eta elkarrekiko begirunea oinarritzat harturik, haurrentzat haur-eskolan dauden aldi hori bizi-esperientzia erabatekoa izan dadin. Horretarako, ez da aski familiek proiektuaren berri izatea; proiektuak haiekin adostutakoa izan behar du, haiek baitira prozesu horretako jokalaria nagusietako bat. Gure eskola-proiektua, bada, familiekin adostutakoa da, haien iritzia entzun baitugu. Familiekin adostutakoa da, haien ideiei kontu egin, eta ideia horiek geureganatu egin baititugu. Familiekin adostutakoa da, haiek eman baitituzte askotan egin beharreko doikuntza txikien berri —izan ere, eguneroko jardunak batzuetan ez digu doikuntza-premia horiek ikusten uzten, eta, kanpotik begiratuta, aldiz, argi ikusten dira—. Eta, azkenik, familiekin adostutakoa da, gurekin batera eraikitzen baitute hartara eskola.

■ Metxekotzeko «denbora»

Iraila iritsi baino askoz lehenago hasten da haurren, familien eta haien irakasleen artean finkatuko den harremana. Lau une garrantzitsu bereizten ditugu guk: hurrengo ikasturtearen plangintzaren azalpena; lehenengo topaketak (izen-ematea); taldearen lehen batzarra (ekainean) eta familia bakoitzarekin eskolako lehen egunetan egiten den batzarra, eta, azkenik, balioespena, etxekotze-prozesua hartan parte hartu duten pertsona guztientzat onuragarri izan ote den jakiteko.

Irakasleok *hurrengo ikasturtearen plangintza* egiten dugunean —abian den ikasturtea amaitu baino askoz lehenago askotan—, familiak eta haurrak eskolan nola barneratuko diren eztabaidatzen eta erabakitzen dugu, horren arabera prestatuko baita besteak beste familiekin egingo den lehen batzarra. Batzar horretan, espazio fisiko eta denbora-tarte zehatz bat ezarriko dira, haurrari buruz gure lanerako alde zuzenetik ezagutu beharreko jakingarri guztien berri jasotzeko eta, era berean, familiei jakin nahi duten gauza guztiak azaltzeko. Batzar hori, beraz, planifikatu egiten da, esanahi eta garrantzi egokia eman dakion; horrenbestez, lantaldearekin eta familiekin eztabaidatzen eta hitzartzen da aurretiaz prozesu guztia. Kontu egin behar da familiak eta haurrak eskolan sartzeko unea funtsezko gaia dela eskolaren filosofian, horretan baitatza eskola egitea.



Familia askotan, sentimendu eta emozio andana bat eragiten du haur-eskolan sartzeko uneak; haurrengandik bereizten diren lehen aldia izaten da maiz; ohartzen gara, beraz, arretaz eta arduraz egin behar zaiela kontu halako une berezian. Bizitzaren lehen urtean dauden haurren taldean are biziago eta argiago azaleratzen da sentimendu hori. Izan ere, gerta liteke, esaterako, haurra lau hilabete dituenean sartzea eskolara, hots, amaren eta haurraren arteko lotura estuen den unean. Gainerako taldeen kasuan, berriz, haurrek familiarekiko lotura guztiz gauzatuta dute eskolara sartu orduko; hala, familiarengandik bereizteak eragina izan dezake haiengan, eta tristura, etxe-mina, segurtasun-eza eta antzeko sentimenduak ernarazi. Horregatik, bai familiek bai haurrek nabaritu behar dute eskolan hartuko dituen pertsona hori sentimendu horietaz jabetzen dela, sentimendu horiek kontuan hartzen dituela eta erantzuna ematen diela. Lehen topaketek, beraz, funtsezko garrantzia dute, konfiantzan, elkarrekiko begirunean eta komunikazioan oinarritutako harreman hori egituratzen hasteko.

Familiek eskolarekin duten lehen kontaktua, eskola ezagutzeko egunak, aurretiaz izena emateko unea... Une horiek guztiak sartzeko dira lehenengo topaketen barnean, une horietan hartuko baitu familiak eskolaren lehen irudia eta une horietan sortuko zaizkio lehen aurreikuspenak. Labur esanda, une horietan hasten dira etxekotzen.

Beste aldi bat osatzen dute izena emateko unea, ekainean egiten den taldeko lehen batzarra eta familia bakoitzarekin egiten den batzarra.

Eskolan izena emandakoan hasten dira familiak jabetzen eskola hori dela beren haurren eskola. Une horretatik aurrera, segurtasunez dakite hori, eta, beraz, galdera asko sortzen zaizkie gai horren inguruan. Ekainean egiten den lehen bilera erabil daiteke, galdera horiek guztiak argitzeko. Bilera horretan azaldu ohi dira, beraz, haurrek eskolan duten bizimoduari buruzko nondik norako guztiak: zer egiten duten, nola jostatzen diren, nola moldatzen diren... baita eskolako dinamikan nola barneratzen diren ere. Gure ustez, batzar horretatik kanpo utzi behar dira, ordea, batzarra nahaspilatu dezaketen alderdi guztiak: paperak, materiala, antolakuntza, araudia... Izan ere, bestela, informazioa pila metatzen da, eta alferrik nolabait, familiek nekez prozesatu edo gogoratu dezaketelako halako informazio mordoa;

gainera, batzarra noranzko bakarrekoa bilakatzeko arriskua dago hartara. Gerora ere izango da nahikoa asti horren guztiaren berri emateko. Lehen bilera horrek noranzko biko topagunea izan behar du; funtsezkoa iruditzen zaigu hori, familiek ere eskolari buruz dituzten zalantzak eta aurreikuspenak azaldu eta zalantza horiek argitu ahal izateko, alegia, eskolak **familien sentimendua jaso** ahal izateko. Aukera ona egin dutela sentitu behar dute batzarra amaitutakoan, eta haur-eskolak familiaren dinamikari jarraipena emango diola nolabait, horrek dakarren guztia kontuan hartuta. Guri dagokigunez, garrantzitsua da batzar horretan azaltzea nolakoak izango diren haurren lehen eskola-egunak, batik bat zer gerta daitekeen aurreratzeko. Izan ere, zer gertatuko den eta egoerak nola bideratuko diren jakitea bezalakorik ez dago seguru sentitzeko. Hala, familientzat funtsezkoa da jakitea beren haurrek laztanak jasoko dituztela negar egiten dutenean, kontu egingo dietela hitz egiten dutenean eta lagundu egingo dietela jan edo atsedean hartu behar dutenean. Ezin dugu ahaztu.

Batzar orokor horretan, azkenik, familia bakoitzarekin egiten den banan-banako bilera zer egunetan izango den adostu behar da. Bilera-eguna adosteko, familiaren beharrezanetara egokitu behar da, eta aukera zabala eskaini behar zaie, guraso biak estu eta larri ibili beharrik gabe joan ahal izan daitezen haurrekin bilera. Horrek ez du esan nahi, baina, hamar familiarentzat hamabi denbora-tarte finko eman behar denik aukeran, sei goizez eta sei arratsaldez, familiaren bat kanpoan geratuko baita hartara.

Bana-banako topaketa hori irailean egitea komeni da, informazio-truke eguneratua egin ahal izateko, uda luzea baita eta denboraldi horretan haurrek aldaketaren bat egiten baitute. Familiei nahikoa denbora eman behar zaie, haien iritziz seme-alabei buruz jakin behar dugun hori azaltzeko, baina, aldi berean, argi izan behar dugu zer jakin behar dugun guk; alegia, argi jakin behar dugu zer den gure lana egin ahal izateko haurrari buruz jakin behar dugun hori. Familia bakoitzarekin egoteko denbora hori aukera bikaina da familiarekin eta haurrekin loturak iruten hasteko, gogoan izan behar baitugu inork baino hobeto ezagutzen duela familiak haurra, eta haurrari eskola-garaian ahalik eta arreta onena emateko jakingarri guztiak eskuratu behar ditugula guk: zer jaten duen, noiz (ordutegiak) eta nola (magalean, aulkian...) jaten duen; noiz eta nola egiten duen lo (besoetan, bere kabuz sehaskan, zapitxo batekin...), eta familiak garrantzitsutzat jotzen duen beste guztia. Era berean, familiek seme-alabei buruz nola hitz egiten duten, hori ere lagungarri izango zaigu hainbat informazio jasotzeko. Izan ere, hitzen atzean ezkututzen dira sentimenduak eta emozioak.

Banakako lehen bilera hori da, halaber, haurrak eskolan izango dituen ordutegiak familiarekin batera erabakitzeke, heziera adosteko eta haurraren hezkuntza-proiektua egituratzen hasteko unea.

Topaldi hori egiteko modu asko daude. Luze idatzi da gai horren gainean, eta ez dugu orain askorik sakonduko; dena den, kontuan hartu beharreko zenbait elementu aipatuko ditugu. Esate baterako, ondo zehatu beharrekoak dira batzar hori non egingo den (haurra egongo den gelan bertan), familiaren eta hezitzailearen artean zer distantzia egongo den (oztopo fisikorik gabe, familiaren eta gure artean distantzia handirik ez egoteko —tartearen mahairik ez, esaterako—), haurrak zer espazio eta zer jolas erabiliko dituen eta nola jaso behar dugun informazioa —ematen digutena eta guk behar duguna—: oharrak bilera amaitutakoan lasai hartuz gero, askoz arreta handiagoz erreparatu ahal izango digu elkarrizketari.

Ondoren etorriko dira lehen eskola-egunak, aurretiaz ondo pentsatu, eztabaidatu eta landutako unek. Lehen eskola-egunak prestatzeko orduan, behar bezala zehatu behar da zer espazio, zer material eta antolamendurako zer baliabide ditugun erabilgarri, bai, orobat, harremanetarako zer baliabide erabiliko ditugun familiekin (sarreretan eta irteeretan informazioa trukatzeko, liburuxkan edo egunerokoan oharrak idazteko, eguerdi-partean telefonoz deitzea eta abar), kontuan hartuta gure

helburua zein den, hots, errespetuzko giro lasai eta atsegina lortzea, haur bakoitzaren premia ase ahal izateko eta etxetik eskolarako igarobidea errazteko. Guztia erraz eta ongi atera dadin, ezinbestekoa da haurrak lotura afektiboa eraikitzea erreferentziako hezitzailearekin, ez orain arte amarekin edota aitarekin eraiki duena bezain estua baina bai eskola-aldia segurtasunez bizitzeko bezain sendoa. Horretarako, arreta osoa jarri behar dugu haurrengan eta haien familiengan, aldez aurretik egokiro planifikatuta eta antolatuta lagungarri gerta dakizkigukeen espazioak eta materialak. Ondo hautatu behar dira jolaserako materialak, haurren interes eta premia guztiak bideratzeko aukera ematen dutela bermatzeko; era berean, ondo antolatu behar dira espazioak, familiei ere tokitxo bat uzteko.

Komenigarria da espazio bat baino gehiago eskaintzea, gela barruan egon nahi ez duten hurrek handik kanpora ibiltzeko aukera izan dezaten; hala, esterako, libre utz daiteke lorategirako sarbidea, inork nahi badu, kanpora ateratzeko modua izan dezan, batez ere dagoeneko eskola ezagutzen duten hurrei begira; gainera, aukera polita da hori, familia berriak giro lasai eta goxoagoan artatu ahal izateko eta gela barruan geratu nahi dutenei horretarako aukera emateko. Are gehiago, gune berezi bat ere presta daiteke, familiak eskolan dauden bitartean gustura eta eroso egoteko. Sofa bat jartzea, adibidez, aukera ona izaten da, familiak ekintzatik pixka bat aldetzeko —hala nahi izanez gero—, baina aldi berean haurrengandik gertu egoteko; hartara, joan-etorrian aritu ahal izango dira haurrak nahi bestetan, ziur egongo baitira familia utzi duen leku horretan topatuko dutela, eta lasaitasun horrek ekintza-eremua zabaltzen lagunduko die.



Hezitzailearekiko lotura bana-banako arreta-uneetan eraiki ohi da. Garrantzitsua da, beraz, hurrekiko une gertukoak aurretiaz prestatzea eta une horiek ondo zaintzea. Ordura arte, familia bakoitzak nork bere modura zaindu du haurra. Esate baterako, haur batzuek helduen besoan artean hartu ohi dute biberoia; beste batzuek, berriz, beren kabuz hartzen dute, eta beste batzuek, azkenik, eskolan hartuko dute lehenengo aldiz biberoia. Kasu horiek guztiak ezin ditugu, beraz, modu berean joratu. Familiak etxean zer ohitura dituzten jakin behar dugu, eskolan ere ohitura horiek errespetatzen saiatzeko. Egon da gerora ere eskolaren hezkuntza-proiektuarekin bat datozen bestelako arreta-eredu batzuk barnatzen joateko aukera, betiere begirune handiz eta familiarekin aurretiaz hitzartuta. Haurraren segurtasun emozionala dago egun horietan jokoan. Hala, bada, esate baterako, eskaera bereziak egin diezazkiekegu familiei lehen egun horietan, hala nola eskolako lehen jatorduetan jatekoa

berek eman diezaietela beren hurrei, lehenengo egunetan umea berek lotaraz dezatela, edo haur-oihala nola aldatzen dieten erakuts diezagutela.

Izan ere, jakin badakigu, lehen urteko taldeetan batez ere, tentuz, begirunez eta luzamendurik gabe erantzun behar zaiela haurren premia oinarrikoenei, jokamolde hori lasaigarria baita haurrentzat eta horixe behar baitute zaintzaile berriekin seguru sentitzeko. Horregatik, guztiz funtsekoa da hezitzaileek ondo antolatzea espazioak, jolas-materialak, biberioak prestatzeko tresnak, hezitzaile laguntzailearen jarduna —halakorik badago— eta, batez ere, familia bakoitzarekiko komunikazioa, horrek guztiak egituratzen baitu haurri ematen zaion arreta; hala, alderdi horiek egokiro landuz gero, nahikoa denbora izango dugu, haur bakoitzari berriaz arreta emateko.

Bigarren urtekoen taldean ere kontuan hartzekoak dira alderdi horiek guztiak; izan ere, talde horrek, halaberrez, ez dagokion erritmo bati jarraitu behar izaten dio maiz, oraindik egiteko gai ez diren eskakizunak ezartzen baitizkiegu askotan, batzuek oraindik urtebete ere ez dutela ahantzita. Lotura, atsedeen-erritmoekiko errespetua, elikadura, bana-banako arreta... talde guztien eguneroko jardunean kontuan hartu beharreko alderdiak dira, are ardura handiagoz haurrek eta familiek eskolan egiten dituzten lehenengo egunetan.

Haur-eskolako talde nagusietan, ostera, gerta liteke banakako harremanetarako une horietan haurrek sentitzea beren intimitatean eta segurtasun afektiboan gehiegi sartzen direla hezitzaileak. Adin horretako haurrek oso argi izaten dute norekin egon nahi duten (eta norekin ez): haur bakoitzak eskatzen digun distantzia hori errespetatu behar dugu beti, eta harengana pixkanaka-pixkanaka gerturatzeko modua aurkitu, seguru eta lasai egon dadin. Badakigu hirugarren urtekoen taldean egon daitekeen haur kopuru handia oztopo izan daitekeela harreman pertsonaletan sakontzeko, baina, hala ere, haur eta familia bakoitzari berriaz arreta emateko uneak aurkitu behar ditugu ikasturte osoan, baina lehenengo egunetan bereziki.

Haurrak denboraldi bat daramala eskolan, nola balioetsi dezakegu nola bizi izan duen hark eta haren familiak orain arteko eskola-aldia?

Galdera horri erantzuna emateko orduan, beste zalantza batzuk sortzen zaizkigu: Zerk adierazten du haurra eta familia ondo etxekotu direla eskolaren testuingurura: haurrak inguru berri horretan seguru sentitzeko behar duen denborak edo testuinguru berri horretan barneratzeko moduak, alegia, prozesu horren nolakotasunak? edo biek, agian? Zergatik daude inguruabar horiek? Noiz jo behar dugu haurra eta familia eskolan etxekotuta daudela: haurra eskolara pozik sartu eta pozik ateratzen denean?


Galdera horiei erantzuna ematea ez da inondik ere kontu erraza. Nork du haurra nola sentitzen den azaltzeko ausardia, are gehiago halako une berezietan? Askoz jota, gure interpretazioa eman dezakegu lehen egun horien nondik norakoei buruz. Nolanahi ere, gure ustez, egon badaude eskolara pixkanaka sartzeko prozesua pertsona guztientzat onuragarria izan dela jakiteko adierazle batzuk, hala nola, haurra eskolako espazioan eta gurekin seguru eta eroso dagoela igartzea, zenbait aldaketa eginda ere lasai jarraitzen duela sumatzea, jolas egiteko ekimena erakustea, eskolako gainerako haurrekin eta helduekin gogo onez harremanetan sartzea eta zer nahi duen eta zer behar duen beldur gabe adieraztea. Haur bakoitzak bere izaera, segurtasuna, motibazioa... azaleratzen dituenean, bestela esan, nork bere berezitasuna eta banakotasuna agertzen duenean, orduantxe joko dugu prozesua amaitutzat. Bestalde, ez dugu familia ahaztu behar. Eskolan etxekotu direla joko dugu, nahi dutenean eta lasaitasun

osoz sartu eta irteten direnean, gelan gurekin esertzeko interesa eta gogoia dutenean, eguneroko une batzuetan naturaltasunez parte hartzen duenean; labur esanda, eskolako kide direla sentitzen dutenean.

Hala, bada, nekez balioetsi daiteke prozesu hori kuantitatiboki, epe zehatz bat ausaz ezarrita, baten batek epe hori nahikotzat jo duelako. Prozesu horretan une bat baino gehiago izaten dira, eta erritmoa ez da beti bera: geldialdiak daude eta aurrerakuntzak; hortaz, *kualitatiboki* neurtzekoa da etxekotze-prozesua; izan ere, gizakia edozein egoerara moldatzeko eta barneratzeko gai bada ere, aldaketak nola bizi ditugun, horretantxe dago gakoa. Eskola osatzen duten haurrak, familiak eta hezitzaileak zenbat, hainbat dira etxekotze moduak.

Ivan Febrer eta Eva Jansà, EBM Bellmunt, Bartzelona.

Infancia aldizkariaren 129. zk.an argitaratua, 2011ko irail-urrietan.



LANBIDE
EKIMENA